

**EUSKAL MEZA, 2021 OTSAILAK 7/FEBRUARY 7, 2021
URTEAREN ZEHAR V IGANDEA/V SUNDAY IN ORDINARY TIME (B)
MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS**

HASIERAKO ABESTIA/ENTRANCE SONG

<p>JESUS, MUNDUKO ARGIA Jesus zinezko egia. Jesus betiko bizia.</p> <p>1. Jesus Jainko gizona Zuri gure bizia hartu gure Jaun ona gu giraden guztia.</p> <p>2. Gure bihotz barruan biztu zure argia gaitezen gu munduan argi Jainkoz betea.</p>	<p>Jesus, Light of the World, Jesus the Truth, Jesus, everlasting Life.</p> <p>1. Jesus God made Man To you we offer our life, Receive, our good Lord, everything that we are.</p> <p>2. In our hearts Kindle your light, May we become in the world Full of God's light.</p>
--	--

HASIERAKO OHIKUNEAK-INTRODUCTORY RITES

<p>† Aitaren, eta +Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. ⊙ Amen. AGURRA † Jaungoiko gure Aitaren, eta Jesukristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin. ⊙ Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesukristo gure Jaunaren Aita.</p>	<p>† In the Name of the Father, + and of the Son, and of the Holy Spirit. ⊙ Amen. Greeting † The grace of our Lord Jesus Christ, and the love of God, and the communion of the Holy Spirit be with you all. ⊙ And with your spirit.</p>
---	--

DAMU OTOITZA- PENITENTIAL RITE

<p>† Senide maiteok, aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santu hauek ospatzeko gai izan gaitezen.</p> <p>† Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna. ⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>† Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki. ⊙ Kristo, erruki.</p> <p>† Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna. ⊙ Erruki, Jauna.</p>	<p>† Brothers and sisters let us acknowledge our sins, and so prepare ourselves to celebrate the sacred mysteries.</p> <p>† You raise the dead to life in the Spirit: Lord, have mercy. ⊙ Lord, have mercy.</p> <p>† You bring pardon and peace to the sinner: Christ, have mercy. ⊙ Christ, have mercy.</p> <p>† You bring light to those in darkness: Lord, have mercy. ⊙ Lord, have mercy.</p>
--	--

† Erruki dakiguela Jainko guztiz ahaltua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

☉ Amen.

† May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life.

☉ Amen.

AINZA ZERUETAN JAINKOARI/GLORY TO GOD IN THE HIGHEST

Aintza zeruetan Jainkoari eta bakea lurrean Haren gogoko gizakiei. Hain handi eta eder zaitugulako, gora Zu, bedeinkatua Zu, gorespen Zuri, ahuspez agur, eskerrak Zuri. Jainko Jauna, zeruko Errege, Jainko Aita guztialduna. Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo, Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme: Zuk kentzen duzu munduko bekatua; erruki, Jauna; Zuk kentzen duzu munduko bekatua; entzun gure deia. Aitaren eskuinaldean jarririk zaude Zu; erruki, Jauna. Zu bakarrik Santua, Zu bakarrik Jauna, Zu bakarrik Gogoikoa, Jesu Kristo, Espiritu Santuarekin Jainko Aitaren argitan. Amen.

Glory to God in the highest, and peace to His people on earth. Lord God, heavenly King, Almighty God and Father, we worship You, we give You thanks, we praise You for Your glory. Lord Jesus Christ, only Son of the Father, Lord God, Lamb of God, You take away the sin of the world: have mercy on us; You are seated at the right hand of the Father: receive our prayer. For You alone are the Holy One, You alone are the Lord, You alone are the Most High, Jesus Christ, with the Holy Spirit, in the glory of the Father. Amen.

MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER

† Egin dezagun otoitza
Zure betiko maitasunez zaindu, Jauna, zure familia: eta gure itxaropen bakarra zure grazia dugunez gero, har gaitzazu beti zure babesean. Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Espiritu Santuarekin batean, Jainko eta Errege bizi bait da gizaldi ta gizaldietan.

☉ Amen.

† Let us Pray
Keep your family safe, O Lord, with unfailing care, that, relying solely on the hope of heavenly grace, they may be defended always by your protection. Through our Lord Jesus Christ, your Son, who lives and reigns with you in the unity of the Holy Spirit, one God, for ever and ever.

☉ Amen.

HITZAREN LITURGIA-Liturgy of the Word Lehenengo Irakurgaia-First Reading Job Liburua/ Job 7:1-4,6-7

Job-en Liburutik

1 «Borroka da gizakiaren bizitza lurrean, lanera behartuarenak bezalakoak haren egunak. 2 Esklaboa bezala, atsedenen irrikan dago; jornalariak bezala, soldata itxaroten du; 3 baina nire partea etekinik gabeko egunak dira, eta gau nekagarriak dagozkit. 4 Oheratu orduko, esaten diot neure buruari: “Noiz jaikiko ote naiz?” Amaigabea egiten zait gaua, jirabiraka egunsentia arte. 6 Anezka baino

From the Book of Job

Job spoke, saying: Is not man's life on earth a drudgery? Are not his days those of hirelings? He is a slave who longs for the shade, a hireling who waits for his wages. So I have been assigned months of misery, and troubled nights have been allotted to me. If in bed I say, “When shall I arise?” then the night drags on; I am filled with restlessness until the dawn. My days are swifter than a weaver's

bizkorrago doaz nire egunak, amaitzear daude, haria bukatzen denean bezala. 7 «Gogoan izan, ene Jainko, bizitza arnasaldi bat dela, ene begiek ez dutela berriro zoriona ikusiko.

□ **Jaunak esana!**

☉ Eskerrak zuri Jauna!

shuttle; they come to an end without hope. Remember that my life is like the wind; I shall not see happiness again.

□ **The Word of the Lord!**

☉ Thanks be to God!

ERANTZUN-SALMOA/RESPONSORIAL PSALM 147:1-2,3-4,5-6

R. Bihotz-hautsiak sendatzen dituen Jainkoa, goretsi dezagun.

Gora, Jauna, ona bait da,
bai eder, gure Jainkoa kantuz ospatzea,
bai gozo, bera doinu eztiz gorestea!
Jaunak du Jerusalem berreraikitzen,
Israelgo erbesteratuak biltzen. **R.**

Bihotz-hautsiak sendatzen ditu,
haien zauriak osatzen.
Izarren kopurua finkatzen du
eta bakoitzari bere izena ematen. **R.**

Handia da gure Jauna, guztiz indartsua,
haren jakinduria neurrigabea.
Jaunak zutik eusten die umilei,
lurreraino eraisten ditu gaiztoak. **R.**

R. Praise the Lord who heals the brokenhearted.

Praise the LORD, for he is good;
sing praise to our God, for he is gracious;
it is fitting to praise him.
The LORD rebuilds Jerusalem;
the dispersed of Israel he gathers. **R.**

He heals the brokenhearted
and binds up their wounds.
He tells the number of the stars;
he calls each by name. **R.**

Great is our Lord and mighty in power;
to his wisdom there is no limit.
The LORD sustains the lowly;
the wicked he casts to the ground. **R.**

Bigarren Irakurragia-Second Reading

San Pablo Apostoluak Korintoarrei 1 Karta/ 1 Cor 9:16-19,22-23

San Pablo Apostoluak Korintoarrei Lehen Eskutitzetik

Senideok,
16 Egiaz, berri ona hots egiten dudala-eta ezin naiz harrotu; ezinbesteko eginbehartzat jotzen baitut hori, eta errukarria ni, berri ona hots egingo ez banu!

17 Hori neure gogoz egingo banu, mereziko nuke saria; baina nik nahi gabe beste batek ezarritako eginkizuna betetzen ari banaiz, 18 zer sari zor zait orduan? Hauxe besterik ez: berri ona dohainik hots egitea, berri onaren zerbitzutik datozkidan eskubideez baliatu gabe. 19 Guztiz libre naizen arren,

From the First Letter of Saint Paul to the Corinthians

Brothers and sisters:
If I preach the gospel, this is no reason for me to boast, for an obligation has been imposed on me, and woe to me if I do not preach it! If I do so willingly, I have a recompense, but if unwillingly, then I have been entrusted with a stewardship. What then is my recompense? That, when I preach, I offer the gospel free of charge so as not to make full use of my right in the gospel. Although I am free in regard to all,

guztien esklabo egin naiz, ahalik jende gehien Kristorentzat irabazteko. **22** Ahul direnekin ahul egin naiz, ahulak irabazteko. Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko. **23** Eta guztia berri onagatik egiten dut, berri on horretan neuk ere parte izan dezadan.

- ☐ **Jaunak esana!**
- ☉ Eskerrak zuri Jauna!

I have made myself a slave to all so as to win over as many as possible. To the weak I became weak, to win over the weak. I have become all things to all, to save at least some. All this I do for the sake of the gospel, so that I too may have a share in it.

- ☐ **The Word of the Lord!**
- ☉ Thanks be to God!

ALELUIA-ALLELUIA

R. Aleluia, aleluia.
Kristok gure ahuleriak hartu zituen bere gain, gure gaitzen zama jasan.
R. Aleluia, aleluia.

R. Alleluia, alleluia.
Christ took away our infirmities and bore our diseases.
R. Alleluia, alleluia.

EBANJELIOA-GOSPEL

† **Jauna zuekin.**
☉ Eta zure espirituarekin.
† **Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik**
☉ Aintza Zuri, Jauna.
† **Jaunak esana.**
☉ Eskerrak Zuri, Jauna

† The Lord be with you.
☉ **And with your spirit.**
† A Reading from the Holy Gospel according to **N.**
☉ **Glory to you, O Lord.**
† The Gospel of the Lord.
☉ **Praise to you, Lord Jesus Christ.**

Ebanjelioa San Markosen Liburutik/Mk 1:29-39

29 Jesus sinagotatik atera eta Simonen eta Andresen etxera joan zen zuzenean, Santiago eta Joanekin.
30 Simonen amaginarreba oheratua zegoen sukarrez; berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi. **31** Joan zitzaion ondora, eskutik hartu eta jaikiarazi egin zuen. Sukarrak alde egin zion, eta zerbitzatzen hasi zitzaion. **32** Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta deabrudun guztiak eraman zizkioten Jesusi.
33 Herri osoa bildu zitzaion atarian. **34** Eta hark gaixo asko sendatu zituen, edozein zela ere haien gaitza, eta deabru asko bota ere bai. Deabru ei ez zien hitzik egiten uzten, bazekiten-eta nor zen. **35** Goizean goiz, oraindik ilun zegoela, Jesus herritik irten eta bazter bakarti batera joan zen; han otoitzean ari zen.
36 Simon eta lagunak haren bila hasi ziren; **37** aurkitzean, esan zioten: –Jende guztia zure bila dabil. **38** Hark, ordea, erantzun: –Goazen beste

On leaving the synagogue Jesus entered the house of Simon and Andrew with James and John. Simon’s mother-in-law lay sick with a fever. They immediately told him about her. He approached, grasped her hand, and helped her up. Then the fever left her and she waited on them. When it was evening, after sunset, they brought to him all who were ill or possessed by demons. The whole town was gathered at the door. He cured many who were sick with various diseases, and he drove out many demons, not permitting them to speak because they knew him. Rising very early before dawn, he left and went off to a deserted place, where he prayed. Simon and those who were with him pursued him and on finding him said, “Everyone is looking for you.” He told them, “Let us go on to the nearby villages that I may preach there also. For this

<p>norabait, inguruko auzoetara, horietan ere berri ona hots egitera, horretarako atera bainaiz. 39 Eta Galilea guztian barrena ibili zen, hango sinagogetan berri ona hots egiten eta deabruak botatzen.</p>	<p>purpose, have I come.” So he went into their synagogues, preaching and driving out demons throughout the whole of Galilee.</p>
<p>☐ Jaunak esana! ◎ Eskerrak Zuri, Jauna!</p>	<p>☐ The Word of the Lord! ◎ Praise to you, Lord Jesus Christ.!</p>

HOMILIA-HOMILY

SINESMENAREN AITORMENA-PROFESSION OF FAITH

<p>APOSTOLUEN AITORMENA † Sinesten dut Jaungoiko Aita ahalguztidun, ◎ Sinisten dut, sinisten dut! † ◎ zeru-lurren egilea. Sinesten dut Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu eta Andre Maria Birjinagandik jaio zena; Pontzio Pilatoren menpean nekaldua; gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena; infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean hilen artetik piztu zena; zeruetara igo eta Aita Jaungoikoaren eskuin aldean jarririk dagoena; handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena. ◎ Sinisten dut, sinisten dut! Sinesten dut Espiritu Santua, Eliza santu katolikoa, santuen elkartasuna, bekatuen barkamena, hildakoen piztuera eta betiko bizitza. ◎ Amen. ◎ Sinisten dut, sinisten dut!</p>	<p>APOSTLES' CREED † I believe in God, the Father almighty, † ◎ Creator of heaven and earth, and in Jesus Christ, his only Son, our Lord, who was conceived by the Holy Spirit, born of the Virgin Mary, suffered under Pontius Pilate, was crucified, died and was buried; he descended into hell; on the third day he rose again from the dead; he ascended into heaven, and is seated at the right hand of God the Father almighty; from there he will come to judge the living and the dead. I believe in the Holy Spirit, the holy catholic Church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting. ◎ Amen.</p>
---	--

JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL

+ Brothers and Sisters: inspired by the Holy Spirit, let us place our needs before God our Father, rejoicing, because Christ has triumphed over death and entered into his glory.

1. For our vulnerable populations: God, protect our elderly and those suffering from chronic diseases. Provide for the poor, especially the uninsured. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
2. For our local, state, and federal governments: God, help our elected officials as they allocate the necessary resources for combatting this pandemic. Help them to provide more tests and vaccinations. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
3. For our scientific community, leading the task to understanding the nature of the diseases and communicate its gravity: God, give them knowledge, wisdom, and a persuasive voice. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**

4. For the homeless, unable to practice the protocols of social distancing in the shelter system: Protect them from disease and provide isolation shelters in every city. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
 5. For families with young children at home for the foreseeable future: God, help mothers and fathers to partner together creatively for the care and flourishing of their children. For single mothers and fathers, grow their networks of support. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
 6. For frontline health care workers, we thank you for their vocational call to serve us, and that vaccinations can be administered in an expeditive and just manner and are available for all. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
 7. For people suffering discrimination for the color of the skin, race, language, gender, or gender orientation. That they all may be treated as children of God who wants all to be saved.
- + Lord God of justice and mercy, hear our prayers. Grant our beloved dead the reward of their labors and to us your consolation in our loss. We ask this through Christ our Lord.

R/. Amen.

EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY

ESKAINZA ABESTIA/OFFERTORY SONG

<p>ESKERRIK ASKO, JAUNA bihotz-bihotzetik; Eskerrik asko Jauna, orain eta beti.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Eskerrik asko, Jauna, gugan zaudelako eta zure biziak bizi garelako. 2. Zure antzera, Jauna, gaitezela ibili zure antzera, Jauna, on eginez beti. 	<p>Thanks so much, Lord, from the bottom of my heart; Thanks now and for evermore.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Thanks, Lord, because you inhabit in us, and because we live out from your very life. 2. That we may live like you, and like you we may go around doing good.
--	---

<p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ogi au, lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu biziaren ogi.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ardo hau, mahatsondoaren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu betiko zorionaren edari.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p>	<p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the bread we offer you: fruit of the earth and work of human hands, it will become for us the bread of life.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p> <p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the wine we offer you: fruit of the vine and work of human hands; it will become our spiritual drink.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p> <p>† Pray brothers and sisters, that my sacrifice and yours may be acceptable to God, the almighty Father.</p>
--	---

<p>† Senideok: egin dezagun otoitz, guztiok batean, Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskaintzerakoan.</p> <p>☉ Jainkoa goresteko eta gizona salbatzeko.</p>	<p>☉ May the Lord accept the sacrifice at your hands for the praise and glory of his name, for our good and the good of all his holy Church.</p>
--	--

OPARIGAIEN GAINEKO OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS

<p>† Jainko gure Jauna, gure biziak suspertzeko egin dituzu eskaintzen dizkizugun ogi eta ardo hauek; bihur itzazu orain guretzat betiko biziaren sakramentu.</p> <p>Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>† O Lord, our God, who once established these created things to sustain us in our frailty, grant, we pray, that they may become for us now the Sacrament of eternal life.</p> <p>Through Christ our Lord.</p> <p>☉ Amen.</p>
--	---

EUKARISTI OTOITZA-THE EUCHARISTIC PRAYER

<p>† Jauna zuekin</p> <p>☉ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† Gora bihotzak.</p> <p>☉ Jaunagan dauzkagu.</p> <p>† Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.</p> <p>☉ Egoki da eta zuzen.</p> <p>† Egoki da, bai, eta zuzen non-nahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko Ahalguztidun betiereko Horri, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>Maitasunez ospatzen dugu Haren heriotza, fede biziz aitortzen dugu Haren piztuera, eta itxaropen sendoz Haren aintzazko etorrera espero dugu.</p> <p>Horregatik, aingeru eta goi-aingeruekin, eta zeruko talde guziekin etengabe goratarre hau abesten dizugu:</p> <p>☉ Santu, Santu, Santua, diren guztien Jainko Jauna. Zeru-lurak beterik dauzka zure distirak. Hosanna zeru-goienetan! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru-goienetan!</p>	<p>† The Lord be with you.</p> <p>☉ And with your spirit.</p> <p>† Lift up your hearts.</p> <p>☉ We lift them up to the Lord.</p> <p>† Let us give thanks to the Lord our God.</p> <p>☉ It is right and just.</p> <p>† It is truly right and just, our duty and our salvation, always and everywhere to give you thanks, Lord, holy Father, almighty and eternal God, through Christ our Lord.</p> <p>His Death we celebrate in love, his Resurrection we confess with living faith, and his Coming in glory we await with unwavering hope.</p> <p>And so, with all the Angels and Saints, we praise you, as without end we acclaim:</p> <p>☉ Holy, Holy, Holy Lord God of hosts. Heaven and earth are full of your glory. Hosanna in the highest. Blessed is he who comes in the name of the Lord. Hosanna in the highest.</p>
---	---

EUKARISTIA OTOITZA II-EUCHARISTIC PRAYER II

<p>† Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri: Santu egizkizu, bada, ogi eta ardo hauek, zure Espiritua isuriz, Jesukristo gure Jaunaren gorputz † eta odol guretzat egin daitezen.</p>	<p>† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the dewfall, so that they may become for us the Body † and Blood of our Lord, Jesus Christ.</p>
--	---

† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz gurutzera zihoala, ogia hartu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA JAN GUZTIOK
HONTATIK: HAU NIRE GORPUTZA DA-
TA, ZUENTZAT EMANGO DENA**

† Afal ondoan, berdin, kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA EDAN GUZTIOK
HONTATIK: HAU NIRE ODOLAREN
KALIZA DA-TA, ITUN BERRI ETA
BETIKOAREN ODOLA, ZUENTZAT ETA
GUZTIENTZAT BEKATUAK
BARKATZEKO ISURIKO DENA. EGIZUE
HAU NIRE OROIGARRI**

† **Hau da sinesmenaren misterioa.**

☉ Ogi ardo hauek hartzean, zure heriotza dugu aitortzen, Zu, Jauna, etorri artean!

† Horregatik, Jauna, zure Semearen heriotza eta piztuera gogoratuz, biziaren ogia eta salbamenaren kaliza eskaintzen dizkizugu, Zuri eskerrak emanez, aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.

† Eta apalik eskatzen dizugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoen zure Eliza: Eramazu maitasun osora, **I.** gure Aita Santuarekin, **I.** gure Artzaiarekin eta elizgizon guztiekin batean.

=====

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik Zuregana eraman duzun **I.** zure zerbitzaria. Heriotzean zure Semearekin bat egin den hau, piztueran ere Berarekin bat izan dadila.

=====

† Gogoan izan, Jauna pizteko itxaropenean joan diren gure senideak eta hildako guztiak: har itzazu zeure aurpegiaren argitan.

† At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT,
FOR THIS IS MY BODY, WHICH WILL BE
GIVEN UP FOR YOU**

† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND DRINK
FROM IT, FOR THIS IS THE CHALICE OF
MY BLOOD, THE BLOOD OF THE NEW AND
ETERNAL COVENANT, WHICH WILL BE
POURED OUT FOR YOU AND FOR MANY
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.
DO THIS IN MEMORY OF ME**

† **The mystery of faith.**

☉ We proclaim your death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

=====

† Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he (she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.

=====

† Remember also our brothers and sisters who have fallen asleep in the hope of the resurrection and all who have died in your mercy: welcome them into the light of your face.

<p>† Erruki zakizkigu, arren, guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, Jose Santua haren senarrarekin, apostolu santuekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren santuekin: haiekin batean gorets zaitzagun, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>† Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, Joseph her blessed spouse, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.</p> <p>† Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.</p> <p>☉ Amen.</p>
---	--

JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-COMMUNION RITE

<p>† Salbatzaileak agindu eta erakutsiari Jarraituz, beldur gabe esan dezagun:</p> <p>†☉ Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurlean ere.</p> <p>Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero; eta ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.</p> <p>† Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik; emaguzu bakea gure egunotan; zure errukiari esker bekatutik garbi bizi gaitzen eta estualdietan sendo, betiko zorionaren itxaropenean, Jesukristo gure salbatzailea noiz etorriko den zai gaudela</p> <p>☉ Zurea duzu erregetza, zureak ospe eta indarra orain eta beti.</p>	<p>† At the Savior's command and formed by divine teaching, we dare to say:</p> <p>†☉ Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.</p> <p>Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation but deliver us from evil.</p> <p>† Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.</p> <p>☉ For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.</p>
---	--

PAKEAREN OHIKUNEA RITE OF THE PEACE

<p>† Jesukristo gure Jauna, Zuk esana da apostoluei: "Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen." Begira zure Elizaren sinesmenari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoa den bezala, emaiuzu Elizari bakea, eman batasuna, Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.</p> <p>☉ Amen.</p> <p>† Jaunaren bakea beti zuekin.</p>	<p>† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.</p> <p>☉ Amen.</p> <p>† The peace of the Lord be with you always.</p> <p>☉ And with your spirit.</p>
---	---

<p>⊙ Eta zure espirituarekin. † Emaiozue bakea elkarri. ⊙ Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna. Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna. Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaguzu bakea.</p> <p>† Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak! ⊙ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat, eta sendatuko naiz. † Kristoren Gorputza. ⊙ Amen.</p>	<p>† Let us offer each other the sign of peace. ⊙ Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us. Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us. Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.</p> <p>† Behold the Lamb of God; behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb. ⊙ Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed. † The body of Christ. ⊙ Amen.</p>
--	--

JAUNARTZE ABESTIA/COMMUNION HYMN

<p>Hor zaude Jesus, aldarean «gorde nahi zaitut bihotzean.» (bi)</p> <p>Zeruetako Jaun handia, eginik gure janaria. O maitetasun (3) ugaria, gizonarentzat gehiegia.</p> <p>Ondasun denen iturria, hiltzeko gure egarria. O ezkutapen (3) pozgarria, zeru ta lurren miraria.</p> <p>Hondo gabeko itsasoa, zerutik jatsi zaran sua. O maitetasun (3) hain osoa, arimarentzat txit gozoa.</p>	<p>There You are Jesus, on the Altar, I want to hide you in my heart. (bis)</p> <p>The great Lord of Heaven, you our nourishment. O Loving (3) generosity, too much for humans.</p> <p>Source of all good, to quench our thirst. Oh hidden (3) joy, a miracle before heaven and earth.</p> <p>A bottomless ocean, fire that come from heaven. O Loving (3) fulness, sweetness for the soul.</p>
--	---

JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA-PRAYER AFTER COMMUNION

<p>+ Jainko Jauna, ogi batetik eta kaliza batetik zu hartzea eman diguzu; egizu, Kristogan bat eginik bizi gaitezela, eta munduaren salbamenerako fruitu ugari erakar dezagula. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.</p>	<p>+ O God, who have willed that we be partakers in the one Bread and the one Chalice, grant us, we pray, so to live that, made one in Christ, we may joyfully bear fruit for the salvation of the world. Through Christ our Lord. R/. Amen.</p>
---	---

BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-FINAL BLESSING

<p>† Jauna zuekin. ⊙ Eta zure espirituarekin.</p>	<p>† The Lord be with you. ⊙ And with your spirit.</p>
---	--

†Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak.

⊙ Amen.

† Zoazte Jaunaren bakean. Aleluia, Aleluia

⊙ Eskerrak Jainkoari. Aleluia, Aleluia.

† May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit.

⊙ Amen.

† Go forth, the Mass is ended. Alleluia, Alleluia.

⊙ Thanks be to God. Alleluia, Alleluia.

AZKEN ABESTIA-FINAL SONG

Aingeru batek Mariari	The Angel of the Lord to Mary
Aingeru batek Mariari Dio graziaz betea Jaungoikoaren semeari Emanen diozu sortzea.	The angel to Mary You are full of grace The Son of God You will give birth.
Jainkoaren nahi saindua Ni-baitan dadin egina Izan nadien amatua Bainan geldituz Birjina.	The Holy Will of God Be accomplished in me So I may be loved But remaining Virgin.
Orduan Berbo Dibinoa Gorputz batez da beztitzen Oi, ontasun egiazkoa: Jauna gurekin egoiten.	Then the Divine Word Is dressed in flesh What a marvelous truth That God rests with us.
Otoitz zazu zure Semea Gure Ama amultsua Izan dezagun fagorea Ardiesteko zerua.	Intercede before your Son Loving Mother, That we may have the grace Of eternal heaven.
Errepika	Refrain
Goiz arrats eta eguerditan, Ama laudatzen zaitugu, Aingeruaren hitzak berak Errepikatzen ditugu	Hail Mary, full of grace, Miraculous, wonderful, From sin our heart Cleanse as you look on us.

**Egun on bat opa dizuet,
I wish you a wonderful day!**



URTEKO BOSGARREN IGANDEA B

(Oinazetan den gizonaren deiadarra)

Joben liburutik 7, 1-4 . 6-7

Job hunela mintzatu zen: **1** “Zinez, borroka da gizakiaren bizia lurrean, langilearenak bezalakoak haren egunak. **2** Esklaboa itzal-gose den bezala, eta langilea lan-sariaren beha bezala, **3** irabazirik gabeko hilabeteak iragan ditut, eta sofrikariozko gauak ukan . **4** Oheratu orduko, erraiten diot nere buruari: “Noiz jeikiko ote naiz?” Gauak ez du burutzerik, amesgaixtoz betea, goizeraino. **6** Ehuleen tuta baino arinago doaz nere egunak, eta bururatzen dira haria eskasten denean. **7** Orroit zaite, Jauna, nere bizia hats bat dela, nere begiek ez dutela berriz zoriona ikusiko.”

Jaunak errana!
Eskerrak Zuri Jauna.

Salmoa 146

Leloa : Mundu guziak Jaunari kantu, bihotz hautsiak sendatzen ditu!

Aipa Jainkoa, ona baita:
Hain baita gozo, hari kanta!
Bihotz hautsiak piztu ditu,
Eta zauriak berak lotu.

Zenbat izar den kondu baitu,
Beren izenaz deitzen ditu.
Handia Jauna, izigarri,
Zuhurtasunaz ezin neurri.

Apalak ditu xut ezarri,
Buru harroak hits igorri.
Kanta Jaunari denek betan
Hari eskerrak soinu eman!

Bigarren irakurgaia

(Apostolua osoki eta deneri emana)

Jondoni Paulok Korintiarreri Lehen Epixtolatik 9, 16-19 . 22-23

Haurrideak, **16** Ebanjelioa iragarri dutala, ez dut zeren espantu egin, nere egin beharra baitut nik hori; zorigaitz neri, Ebanjelioa iragar ez baneza! **17** Nere baitarik ari banintz, mereziko nuke saria. **18** Bainan ez naiz nere baitarik ari, Jaunaganik ukan dutan kargua dut betetzen. Zer sari zor zait orduan? Hau bakarrik: Ebanjelioa urririk iragartzea, Ebanjelioak eman eskubideez baliatu

gabe. **19** Guzietarik libre izanagatik, guzien esklabo egin naiz, ahalik eta jende gehiena Kristorentzat irabazteko. **22** Ahul direnekin ahul egin naiz, ahulen irabazteko. Guziekin guziekilako egin naiz, nolazpait batzuren salbatzeko. **23** Eta hori guzia Ebanjelioarengatik egiten dut, nihaurek ere salbamenduan parte izan dezadan..

Jaunak errana!
Eskerrak Zuri Jauna.

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia
Jesusek gure ahuleziak hartu ditu, eta gure gaitzak ereman
Alleluia, alleluia

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 1, 29-39

29 Kafarnaumeko zinagogatik ateratzean, Jesus Simun eta Andresen etxerat joan zen, Jakobe eta Joanirekin. **30** Simunen amaginarreba ohean zagon sukarrarekin. Berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi. **31** Hurbildurik, Jesusek eskutik hartu eta jeikiarazi zuen. Sukarrak utzi zuen, eta zerbitzatzen hasi zitzaioten. **32** Arratsean, iguzkia sartu ondoan, eri eta debrudun guziak ekarri ziozkaten Jesusi. **33** Herri guzia ate aitzinean bildua zagon. **34** Eri ainitz sendatu zituen edozein gaitzetakoak, eta debru ainitz haizatu. **35** Ez zituen debruak mintzatzera uzten, baitzakiten heiek nor zen. Goizean goiz, oraino ilun zelarik, Jesus jeiki zen. Herritik atera zen eta bazterleku baterat joan: han otoitzean ari zen. **36** Simun eta haren lagunak Jesusen bila hasi ziren. **37** Aurkitu zutenean, erran zioten: “Denak zure bila dabilta.” **38** Bainan Jesusek ihardesten diote: “Goazen beste norapait, inguruko herrietarat, horietan ere Berri Ona oihuka dezadan, hortarako atera bainaiz. **39** Galilea guzian barna ibili zen, heien zinagogetan Berri Onaren predikatzen eta debruen haizatzen.

Jaunak errana!
Eskerrak Zuri Jauna.